

AURKEZPENA.

Aurtengoan ere **GETXOKO** Udalak partaidetza-aurrekontuen prozesu bat jarri du martxan.

LEHENENGO FASEA irailaren 18an hasi zen eta urriaren 1ean amaitu zen; udalerriko bizilagunen ekarpenak jasotzea izan zen fase horren helburua. Zentzu horretan, prozesuan parte hartu zuten getxotarren iritzia **2018ko urtarrilaren 26a eta otsailaren 11 bitartean** gauzatu den parte hartzeko BIGARREN FASE honetako proiektuei edukia emateko balio izan zuen.

Herritarren parte-hartzetik hainbat aukera eta abantaila eratoritzen dira, eta horiek, modernoa, eraginkorra, gardena eta, batez ere, herritarrekiko gertukoa den tokiko erakundea finkatzen laguntzen dute. Prozesuak honako helburu hauek ditu:

- Herritarrak udal gobernuarekin lotzea, erakundearen lana eta kudeaketa ezagutaraziz.
- Gure bizilagunen lehentasunak eta beharrak ezagutzea eta denen eskaera errealekin bat datozen irtenbideak eskaintzea.
- Getxoko bizilagunen protagonismo aktiboa sustatzea, herritarrak ez daitezen izan lurraldeko bizitza publikoaren ikusle soilak.
- Herritar ahaldunduekin, kudeaketa publikoan arrazoiduna, eraginkorra eta gardena den Udal bat indartzea.
- Hausnarketa aktiborako, eztabaidarako eta elkartasunerako bideak irekitzea, herritarren eta tokiko erakundearen arteko elkarrikeria eta komunikazioa hobetzen lagunduko dutenak.
- Herritar, ordezkari politiko eta teknikariekin egiaztatutako aurrekontu irekiak onartzea.

Hainbat motatako ekarpen asko bildu zituen lehenengo faseatik, bigarren fase batean herritarrek balioztatu eta lehenetsi beharreko hainbat proiektu agertu ziren:

DENOMINACIÓN DE LA PROPUESTA	CUANTÍA GASTO
1. Adecuación de la Plaza de la Estación de Las Arenas	600.000 €
2. Ampliación y mejora red de Bidegorriak	100.000 €
3. Mejora de la accesibilidad con nuevo ascensor que elimine el desnivel desde la estación de Aíboa	900.000 €
4. Ubicación de baños públicos en diferentes puntos	160.000 €
5. Mejorar parques y más zonas verdes	100.000 €
6. Más propuestas dirigidas a la juventud	100.000 €
7. Más actividades para la promoción de la economía local	100.000 €
8. Promocionar el turismo	100.000 €

Parte hartzeko beharrezkoa izan da aurkeztu ziren proiektu guztiak 1etik 8ra puntuatzea.

Getxoko Udalak 1.000.000 euro erabili ditu proiektu horretarako; beraz, ez litzateke posible izango proposatutako proiektu guztiak gauzatzea, proiektuaren batukari orokorra dela eta.

Lehenespeneren bidez herritarrak bakoitzaren lehentasunen arabera kokatzea lortzen da eta proiektu guztiak beheranzko lehentasun lerroan jartzen ditu.

Jarraian, bigarren fasean herritarren parte-hartzerako gaitutako bideak zehazten dira:

- a) Online galdetegia (beren-beregi gaitasun teknologikoak dituzten pertsona erabiltzaileentzako xedatua), **2018ko urtarrilaren 26tik otsailaren 11ra arte** gaitua.
- b) Kutzak Fadurako, Gobelako eta Andra Mariko kiroldegietan eta Herritarren Arretarako Bulegoetan.
- c) E-maila, gobernuirekia@getxo.eus helbidera eskaneatutako galdetegiak bidaliz.
- d) Herritarren ekarpenak jasotzea erraztuko duten parte hartzeko postontziak. Bertan, aldeztu aurretik postontzietan utzi diren paperezko galdetegiak sartu beharko dira. Parte-hartzeko postontziak (**2018ko urtarrilaren 26tik otsailaren 11ra arte** gaituak) toki estrategikoetan kokatu dira (Algorta, Areeta eta Bidezabalgo metro-irteeren inguruan), udalerrian prozesuaren hedadura egokia eta herritarrak ekimenera sartu ahal izatea bermatzeko xedearekin.

Ekimen parte-hartzailea, kalean karpak jarriz,

Asteazkenean, urtarrilaren 31n: Areetako metro geltokiaren inguruan.

- Ostegunean, otsailaren 1ean: Bidezabalgo metro geltokiaren inguruan.
- Ostiralean, otsailaren 9an: Algortako metro geltokiaren inguruan.

Txosten honetan erakutsitako parte-hartze prozesuaren emaitzek gizarte- eta estatistika-azterketen kalitate-estandarrak jarraitu dituzte, emaitzen egiazkotasuna eta fidagarritasuna edota datuen zainketa zorrotz bat eta anonimata eta konfidentzialtasuna bermatuz, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera.

1. PROZESUAREN AZALPENA

Partaidetza aurrekontuen prozesua herritarrentzako xedatuak dauden parte-hartzerako aurrez aurreko bideak eta bide birtualak batzen dituen metodologia baten bitartez egituratu da. Zehazki, udalerrian erroldatuta dagoen 16 urtetik gorako edozein pertsonak izan du parte hartzeko aukera; bai eta elkarteek, fundazioek, sindikatuak, enpresa-elkarteak, elkargo profesionalek, zuzenbide publikoko korporazioek eta udalerrian erroldatuak dauden eta izaera juridikoa duten arlo ezberdinetako erakundeak ere.

Komunikazio-prozesua publizitatea eta prozesuaren ikusgaitasuna honako bide hauen bidez integratu dituen sozializazioan oinarritu da:

- Prozesuaren zabalkundea, Getxoberri udal astekariaren bidez.
- Sare sozial instituzionalak.
- Prozesua sustatzeko bideoa.
- Zuzeneko hitzaldiak, irailaren 18tik 22ra (19:00etan), 1. FASEAN:

❖ 09/18: Villamonteko Kultur Etxea

❖ 09/19: Getxo Elkartegia

❖ 09/20: Gobelaurreko Boluntario Zentroa

❖ 09/21: Andra Mari kiroldegia

❖ 09/22: Gobela ikastola

Berrikuntza gisa, prozesu honen testuinguruan, baita lehenengo fasean ere, 16 urtetik gorako ikasleak dituzten udalerriko ikasketa zentroein hainbat tailer egiteko aukera eskaini zaie. Hauexek ziren tailer horien helburuak:

- ➔ Udal aurrekontu bat zer den, nola antolatzen den eta zein eskumen dituen ulertzea.
- ➔ Udal aurrekontuak egiterakoan herritarren parte-hartzetik eratorritako onurak ikusgai jartzea ➔ Martxan jarri den parte-hartze prozesua azaltzea
- ➔ Parte-hartzera deitu.

Planteatu diren helburuak lortzera bideratutako hitzaldi bat egiteaz gain, udal aurrekontu bat prestatzea xede zuen dinamika bat egin zen ikasleekin, udalerriko jarduketa eremuen arabera. Ondoren, aurrekontu hori egiazko aurrekontuan egiaztatu zen. Horrela, ikusgai jarri ziren Udalak bideratzen dituen partidak eta herritarrentzako zerbitzuen zenbatekoa.

Guztira, bi tailer egin ziren irailaren 22an batxilergoko lehenengo mailako ikasleekin (A eta D ereduak) Julio Caro Baroja BHIIn.

2. EMAITZAK

2.1 Parte-hartzearen emaitzak

Bigarren fase honetan zehar proiektuen balorazioekin betetako **1076 galdetegi** jaso ziren.

Galdetegiak jaso ostean, datu pertsonalak udal eroldarekin kontrastatu ziren eta galdetegi guztiek parte hartzeko ezarri ziren baldintzak bete zituztela egiaztatu zen:

1. Udalerrian eroldaturik egotea.
2. 16 urte edo gehiago izatea.
3. Datu pertsonalak betetzea.

4. 1etik 8rainoko balorazioak ematea (1 izanik puntuaziorik txikiena eta 8 handiena), puntuazioak errepikatu gabe eta proposatutako proiektuak balioztatzea.
5. Pertsona bakoitzak behin bakarrik parte hartzea.

Balorazioetan jasotako boto guztietatik honako emaitzak atera ziren:


978 baliozkoak ziren eta 98 baliogabeak (hainbat arrazoiengatik).

Parte hartzeko bideak:


Jarraian balorazioak aurkezteko erabili ziren bideak azaltzen dira:

- **593 galdetegi paperean aurkeztu ziren.** Galdetegi horiek honako puntu hauetan jaso ziren: o 224 Erromon – Areeta o 220 Algortan o 98 Andra Marin
- 483 online

Datuak sexuaren arabera aztertzen badira, parte-hartzaileen erdia baino gehiago emakumeak izan dira, hots, parte-hartzaile guztien % 58 emakumeak izan dira.



Parte-hartzaileen adinari dagokionez, grafikoan ikus daitekeen bezala, **galdetegi guztien % 7a bakarrik bete dute 30 urtetik beherako pertsonak**. Aitzitik, zati garrantzitsu bat, 3 parte-hartzailetik 1 baino gehiago 65 urtetik gorakoak dira.



2.2 Herritarren ekarpenak


Ohar metodologikoa: emaitzak analisi kuantitatiboarenak diren estatistika teknikak erabiltzearen bidez lortu dira. Ikuspegi metodologikoak aurrez zehaztutako adierazle ezberdinen diagnostikoa egiteko hala gomendatzen duenean, aldagaien identifikazioa, funtzio sumatorioa (Σ) eta batez besteko aritmetikoa (\bar{x}) gauzatuko dira.

Era berean, herritarren ekarpenak kuantifikatuak izan dira eta, horrela, posible da Getxoko bizilagunen partaidetzako emaitzak modu agerikoan sortuko dituen mapa kuantitatibo bat egitea.

2.3 Parte-hartzearen emaitzak

Epigrafe honetan bigarren faserako aukeratu diren proiektuen balorazioetatik jaso diren behin betiko emaitzak azaltzen dira.

Datuak aztertzeko erabili den metodologiak honako emaitza hauek atera ditu:



Ikus daitekeen moduan, parke eta lorategien hobekuntza izan zen proiekturik bozkatuena. Bigarren postuan komun publikoen kokapena gelditu zen eta Aiboan dagoen desnibelean irisgarritasuna errazteko igogailua jartzea izan zen hirugarren proiektu bozkatuena.

Bestalde, boto gutxien lortu zituztenak turismoa sustatzeko eta Areetako geltokiko plazaren egoera hobetzeko proiektuak izan ziren. Erdiko puntuetan gelditu ziren gazteria arloko politikekin, tokiko ekonomia sustatzearekin edo bidegorri-sarearen hobekuntzarekin loturiko proiektuak. Azken batean, getxotarrek interes handiago erakutsi dute beraien eguneroko bizitzako alderdiak hobetzeko, izan ere, lorategien eta gunen berdeen hobekuntzarekin beraien inguruaz gozatzea bilatzen dute, eta komun publikoekin eta Aiboara hurbilduko dituen igogailuarekin beraien erosotasuna hobetu nahi dute.